



**ITSASONDOKO  
UDALA**



# **ITSASONDOKO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN ILDO ESTRATEGIKOAK**

**ITSASONDOKO UDALA  
GAZTERIA ARLOA**

**2008KO IRAILA**



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **Eskema**

### **1. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGUNGO ERREALITATEA.**

- 1.1. Haur, nerabe eta gazteen errealitatearen azterketa.
- 1.2. Haur, nerabe eta gazteen egoera eta beharrak.
  - 1.2.1. Haurren egoera eta beharrak
  - 1.2.2. Nerabeen egoera eta beharrak.
  - 1.2.3. Gazteen egoera eta beharrak.
- 1.3. Itsasondoko haur,nerabe eta gazteen egoera eta beharrak.
  - 1.3.1. Itsasondoko haur, nerabe eta gazteen errealitatea.
  - 1.3.2. Itsasondoko haur, nerabe eta gazteen beharrak.

### **2. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN DEFINIZIOA.**

- 2.1. Gazteria Kontzeptuaren bilakaera historikoa.
- 2.2. Gazteria arloan esku hartzeko moduen bilakaera historikoa

### **3. ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA GAZTERIA POLITIKETAN .**

- 3.1. Administrazioaren parte-hartzearen zergatia gazteria politiketan.
- 3.2. Administrazio maila bakoitzaren esku-hartzea gazteria politiketan.
- 3.3. Haur eta gazteria politikak epe luzean.
- 3.4. Haur eta gazteria politikak garatzeko baliabideak eta tresnak.

### **4. ITSASONDOKO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN BILAKAERA HISTORIKOA ETA EGUNGO EGOERA.**

- 4.1. Itsasondoko Haur eta Gazteria Politikaren historia laburra eta egungo egoera.
- 4.2. Itsasondoko Haur eta Gazteria Politikaren helburuak lortzeko baliabideak eta tresnak.

### **5. ITSASONDOKO LAN PROPOSAMENA.**



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **1. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGUNGO ERREALITATEA**

### **1.1. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ERREALITATEAREN AZTERKETA.**

Jarraian aurkeztuko diren datu gehienak, Eusko Jaurlaritzako iturrietatik jasoak dira. Euren planteamenduan, "Gaztea" kontzeptua 15-30 urte bitarteko adin tartearak hartzen ditu. Ondorioz, 0-15 urte bitartekoei dagozkien informazioa bilatzea zaila izan da. Hala ere, Itsasondon 2007.urtean egindako aurrediagnostikoa erabili da atal hau idazteko ere, eta bertatik 0-15 urte bitarteko adin tarteei zuzendutako datuak biltzen dira.

#### **Haur, nerabe eta gazteen ezaugarri soziodemografikoak:**

Itsasondok egun 631 biztanle ditu eta kopuru hau urtez urte gutxitzen joan bada ere, 2005etik aurrera kopuru honek gora egin du. Biztanleria horretatik 165 haur, nerabe eta gazteak dira, % 26 hain zuzen ere. (Gipuzkoan, orotara, 218.013 gazte daude, % 32). 0-12 urte bitartekoak 71 dira, 13-17 bitartekoak 25 eta 18-29 bitartekoak 69.

#### **Gazteen soslaiak:**

- Emantzipatze maila baxua da 15-30 urte bitarteko gazteen artean, sei gaztetatik bakarra dago emantzipatuta. Emakumezkoen emantzipatze maila gizonetzkoena baino zertxobait altuagoa da. Itsasondoren kasuan, emantzipazioa erraztu asmoz, gazteentzat etxe berriak eraiki dira prezio egoki batean eta 30 urte bitarteko gazteentzat alokairuak eskeini.
- Gipuzkoar gazteen ikasketa maila altua azpimarragarria da. Desagertu egin dira lehen mailakoak baino ikasketa maila baxuagoa duten gazteak, eta adierazgarriak dira ikasketa unibertsitarioak (maila ertainekoak nahiz goi-mailakoak) amaituta dituzten gazteen proportzioak.
- Okupazioari dagokionez, gazteen ia erdia lanean ari da, nahiz eta erdia aldi baterako kontratuarekin bada ere. Lan merkatuan sartzeko oztopo gehiago aurkitzen dituzte emakumeek gizonetzkoek baino.
- Itsasondon, dauden lan zerbitzu gehienak industria, eraikuntza eta nekazaritza dira. Proportzioan gizonetzkoak dira lan mota hauetan lan egiten duten gehiengoak.
- Lan merkatuan aurkitzen diren gazteen gehiengoak ikasketa profesionalak eta goi-mailako ikasketa ertainak egin dituztenak aurkitzen dira, aitzitik, goi-mailako ikasketak dituztenen proportzio handi bat aurkitzen da langabezia. Itsasondon langabezia %5,79koa da eta emakume gehiago daude langabezia gizonetzkoak baino.
- Gipuzkoako hiru gaztetik bi euskaraz hitz egiteko gai da, eta hauen erdiak baino gehiagok euskaraz nagusiki hitz egin ohi du bere etxearekin eta lagunekin. Itsasondon, euskara ezagutza oso altua da. Etxean eta kalean erabiltzen den hizkuntza nagusia euskara da. Haur hezkuntza eta lehen hezkuntza eskaintzen duen herri eskola dago eta bertan D eredu eskaintzen da.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### Biztanleriaren jatorria:

- Itsasondon bizi den jende gehiena bertakoa da ( % 51 ). Hala ere, etxeak merkeagoak dira inguruko herriekin alderatuz, eta azken boladan eskualdeko jende gaztea etorri da bertara bizitzera ( % 18 ).
- Itsasondoko gazteengan bi joera nagusi nabarmendu izan da azken urteetan bizilekuari dagokionez: gazteek beraien bizilekua herritik kanpo kokatzeko joera zuten; gaur egun, ordea, herrian bertan geratzeko joera gailendu da, eliza ondoan etxe merkeagoak eraikitzen ari baitira. Herrian bertan zenbait baliabide (jangela, taberna, haur eskola,...) ipintzeak ere lagundu du hogeita hamar urtetik gorako gazteak, bikoteak,..herrian geratzea.

### Esparru pertsonala eta familiarra:

- Orokorrean 15-29 urte bitarteko gazte gipuzkoarrak gustura daude bai bere bizimoduarekin eta baita famili artean dituzten komunikazio maila eta harremanekin ere. Baina aukera izanez gero gehiengoak nahiago du gurasoena ez den beste etxe batean bizitzea. Honela, emantzipatzeko adinik desiragarriena 24 urteren inguruan kokatzen dute baina errealitatean 27-29 urte izaten dira.

### Gazteen ohitura eta jarrerak:

- Gazteek astean aisialdi eta dibertsiorako bataz beste 32 ordu libre dituzte, denbora libre gehien astuburuetan izaten dute.
- Prentsa irakurtzen dutenen kopurua nahikoa altua da, baina ez irakurzaletasuna. Emakumezkoen artean zerbait altuagoa da irakurzaletasuna.
- Ordenagailua ohiko tresna bihurtu da eta gazteen laurdena konektatzen da internetera, gizonezkoen proportzioa emakumezkoena baina altuagoa izanik.
- Gazteen erdiak kirola egiten du maiztasunez. Itsasondon esku pilota kirolaren zaletasuna badago, gazteek pilotalekua asko erabiltzen dute, kirola egiteko aitzakiarekin elkartzeko gune aproposa da.
- Bost gaztetik hiruk inoiz sexu-harreman osoa izan dute, lehen aldiz batez beste 18,5 urterekin.
- Gazteek maiztasunez gehien erabiltzen duten garraiobidea autoa da eta emakumeek gehiagotan erabiltzen dute garraio publikoa gizonezkoek baino. Itsasondon, garraio publikoaren eskeintza ona da: goierrialdea autobus lineak Legorreta-Zumarraga lotzen ditu, aldiriko zerbitzuak ( Irun – Donostia - Brinkola) tren eta Ordiziatik oso gertu dago. Nahiz eta maiztasunez gehien erabiltzen duten garraiobidea autoa izan, gazteek garraio aukera zabala dute.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### Gizarte balioak eta erlijiozkotasuna:

- Gazteek moral irekia dute eta permisiboak dira. Norbanakoen sexu-askatasuna osoa behar duela esaten dute, eta gehiengo eutanasia eta abortoren aldekoa da.
- Gehiengo handi batek, momentua bizitzea/aprobetxatzea nahiago du, etorkizunean pentsatzea eta geroa planifikatzea baino.
- Erdiak pasatxok era bateko edo besteko sinesmen erlijiosoa du, laurdena fedegabetzat jo daitekeelarik. Praktika erlijiosoa aldiz nabarmen baxuagoa da.

### Gizarte harremanak eta integrazioa:

- Gazteen erdiak pasatxok elkarte edo talderen batean parte-hartzen du. Gazte hauek gehien hautatzen dituzten taldeak kirol-elkarteak, atseginerako-elkarteak eta kultur-elkarteak dira. Itsasondon gehienbat izaera orokorreko elkarteak daude (Jubilatu Elkartea, Odol Emaileak, Emakume Taldea,...) gazteek osaturiko elkarerik ez dago. Gazteen parte hartzea herriko elkarte hauetan oso puntuala da.
- Hamar gaztetik zortzik parte hartu du inoiz komunitatearen bizitza politikoan. Ekintzarik zabalduena bozkatzea izan da, baina gazteen proportzio adierazgarri batek, informazio politikoa jarraitu, gai politikoak defendatu edo kalean ekintza erreibindikatiboetan parte hartu du.

### Gazteak eta politika:

- Gazteen ia erdiak ez du bere burua ezker-eskuin ardatzean kokatzen, baina kokatzen direnen artean gehienak ezkerrean kokatzen dira.
- Gaztea ezker-eskuin ardatzean kokatzeko garaian herri txikietan gehiago dira beren burua posizionatzen ez dutenak, baina baita ezkerrean kokatzen direnak ere.
- Lautik hiruk demokrazia beste edozein gobernu modu baino hobea dela uste du.
- Erakundeei buruz iritzi kritikoa dute.
- Bost gaztetatik bik Euskal Herrian independentziak egoera hobetuko lukeela uste du eta bostetik batek kontrakoa.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **1.2. HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGOERA ETA BEHARRAK.**

Gizartea denboran zehar aldatzen den errealitatea da eta gazteria gizartearen ispilua da. Honela, haur, nerabe eta gazteen beharrak ezagutu ahal izateko gizartean emandako aldaketak aztertu behar dira:

### **Gizarte joerak:**

Aldaketa demografikoak:

- Bizi itxaropenak gora egin du.
- Jaiotze tasak behera.
- Populazioa zahartzen ari da.
- Migrazio mugimenduak daude.

Aldaketak familian:

- Emakumeak lan merkatuan sartu dira.
- Lana eta familia bizitza batera aurrera eramateko erraztasun gutxi jarri dira martxan.
- Haurren eskubideak aitortu eta onartu dira.
- Gazteek familiaren etxeko egonaldia luzatzen dute.
- Aldaketak familia egiturari: guraso bakarreko familiak, izatezko bikoteak, bigarrenengo bateratzeak, bakarrik bizi diren pertsonak.

### **Joera ekonomikoak:**

Globalizazioa:

- Lanari nazioarteko berrantolaketa eman zaio.
- Ekoizpen sisteman iraultza gertatzen ari da.
- Liberalismo ekonomikoa da nagusi.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak gero eta gehiago erabiltzen dira.

Lan prekarietatea:

- Aldi baterako kontratuak gero eta gehiago dira.
- Hirugarren sektorea nagusitzen da.
- Ezkutuko ekonomia handitzen ari da.
- Kualifikatuta ez daudenak enplegutik kanpo gelditzen dira.

Gizartearen dualizazioa:

- Norbanako batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak handitzen ari dira.
- Integratuak eta baztertuen arteko banaketa.
- Gazteak, emakumeak eta etorkinak dira ahulezi egoera larriago batean daudenak.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### Kultura joerak:

Kontsumismoa eta uniformizazio kulturala:

- Kultura kontsumo bihurtu da eta identitate kulturala kontsumoaren bitartez lortzen da.

Kulturartekotasuna:

- Egun Euskal Herrian kultura mosaikoa dago, hau da, gizarte talde ezberdinetako espresioa den kultura hiritarra.

Gizabanakoaren afirmazioa:

- Ezberdinak izateko eskubidea aldarrikatzen da, diskriminazio positiboa onartuz.
- Diskriminazio positiboa.

Gizarte eragile berriak:

- Gizarte eragile tradizionalak (familia, eskola,...) protagonismoa galdu dute.
- Eragile berriak agertu dira, hala nola, kalea, adin berekoen taldea, aisialdia, komunikazio hedabideak eta teknologi berriak...

Gizartearen parte-hartzeko moduen aldaketa:

- Sindikatuetan, alderdi politikoetan eta elkartegintzan parte-hartzea jaitsi egin da.
- Militantzia desagertu da.
- Gaur egun parte-hartzea gero eta puntualagoa da.

#### **1.2.1. Haurren (0-12) egoera eta beharrak.**

Gaur egungo haurtzaroaren kontzepzioa ez da naturala edo emandakoa. Haurtzaroa aurkikuntza historiko eta sozial "nahiko berria" da. Gauzak honela, haurtzaroaren definizio bateratu bat aurkitzea zaila da.

Gizarte mailan, haurren bizitzan "kaleak" bizi espazio bezala duen garrantzia desagertzen ari da, bai diskurtsoan eta bai egunerokotasunean. Haurren espazioak etxea, eskola eta hurrei zuzendutako ekintzak egiten dituzten elkarteek eskainitako lokalak dira. Etxean jolasten dute maiz, eta askotan bakarkako jolasekin. Teknologia berriek aisia eta ikaskuntzarako aukera berriak eskaintzen dituzten gizarte honetan, hezkuntzaren kontzeptu tradizionalaren berrirakurketa bat egitea beharrezkoa da, eta, orain arte, planteatzen ez ziren alderdi batzuk bere barne hartu beharko lituzke. Gaur egun, hezkuntzak bere baitan hartu behar du hurrei gizarteak eskaintzen dizkien baliabideak egoki erabiltzea.

Haurra ez da gizarte aktore errekonozitua. Egoera hau "haurraren ikusezintasuna" izenez bezala ezagutzen dugu. Haurra familia baten barruko partaide bezala azaltzen da



**ITSASONDOKO  
UDALA**



eta ez da subjektu sozial eta indibidual bat bezala ikusten. Haurraren ikusezintasun horrek haurraren indibidualtasuna eta besteengatik bereiztua dena ez onartzea dakar. Gurasoen aldetik haurrak gehiegi babesteko joera ere badago eta honi isolamendu soziala gehitzen badiogu, haurren autonomia eta ardurak hartzearen garapenean eragin handia du. Haurren partehartzea haien bizitza kalitatearen hobekuntzarako elementu benetan garrantzitsua da garapen psikosozialari begira.

Haurren heziketa prozesuan eragile desberdinek parte hartzen dute (familiak, eskolak, aisialdi taldeak, eskolaz kanpoko ekintzen arduradunek, udalak,...). Gizarte mailan hezkuntza gurasoen eskumena bezala ulertzen da eta eskumen delegazioa edo utzikeria leporatzen diete askok. Egia da heziketa kontzeptua zabaldu eta aldatu egin dela eta hezitzearen ardura konpartitua bihurtu dela: eragile guztien lan osagarriari esker haurra hezitzen doa.

Heziketa formalaz gain, egun garrantzia handia du hezkuntza ez formalaren esparruak, baita haurren denbora libreak eta aisiak ere. Honela, denbora librearen erabilpen egoki batek, pertsonen bizitza erritmoan armonia bat izatea bermatzen du. Denbora librean sozializazio prozesu bat martxan jartzen da, haurra jokaera jarraibide batzuk bereganatzen joaten delarik. Ondorioz, denbora libreak gizarteratzailea eta hezitzailea beharko luke izan.

Haurrek behar eta ezaugarri zehatzak dituzte adin tarteen arabera ezberdinak direnak eta guztiak kontuan hartu behar dira heldutasunerako bide horretan garapen egoki bat izatea bermatu nahi badugu. Lehen adinean haurrak mundua beraien zentzumenen bitartez arakatu eta imitazioaz erantzuten du. Hazi ahala, helduen munduko balore jakin batzuk dituen kontzientzia hartzen joaten da. Pentsamendu logikoa bereganatzen hasiko da ostean, garapen soziala eta talde bizitzari hasiera emanik. Haurtzaroaren bukaera pubertaroarekin iristen da, honen ezaugarrietako batzuk hauek izanik: autodeterminazioaren nahia, haurra gizabanako izatearen sentimentua, bere burua taldeko partaide lez ikustea,... Hemendik aurrera nerabezaroan barneratzen da, nerabea da eta behar eta ezaugarri propioak izango ditu.

### **1.2.2. Nerabeen (13-17) egoera eta beharrak.**

Gaztaroa luzatu denetik, nerabezaroa ere agertu da berezko garai modura, haurtzaroa eta gaztaroren artean dagoen etapa da, bere ezaugarri propioak dituelarik; haurrak jadanik ez dira baina oraindik gazteak ere ez. Identitate bila dabiltzanak dira, emantzipatzeko bide luzea egin beharko dutenak. Bestalde, aldaketa garaia da; haurra izatetik gaztea izatera pasa, eta nahiz eta oraindik gaztea ez izan, aldaketa fisikoak, psikologikoak eta mota askotakoak gertatzen dira etapa honetan.

Garapenaren eta heziketaren aldetik, garrantzi handiko garaia da nerabezaroa, bertan identitatea definitzen delako, baloreak integratzen direlako eta sozializazioa bideratzen



**ITSASONDOKO  
UDALA**



delako. Gauzak horrela, nerabeak gidatu egin behar dira, heldutasunera bitarteko prozesu horretan lagundu egin behar zaie. Familiatik at askatasunaren bila ateratzen dira nerabeak eta zenbait asperturekin lehenengo harreman posiblea egiten dute; elikadura, kontsumoa, drogen kontsumoa, harreman afektibo-sexualak, komunikazioa, telebista eta teknologi berrien erabilera... Guzti hau, nahiz eta helduen ikuspegitik arrisku bezala ikusi, autonomia eta garapen pertsonalaren aldetik oso aberasgarria da nerabearentzat frogatze momentu hori, gehienbat lagunartean eta aisian ematen dena. Etapa honetan aisia da beren benetako lekua, berdinen arteko harremanak garrantzia handia hartzen dute, nerabeen arteko kohesioa sendotuz eta euren arteko autoidentitatea indartuz.

Bestalde, bai haur eta nerabeetan ere, hezkuntzarekiko ardura eta erantzunkizuna eragile ezberdinena da eta lan osagarri bat burutzeko saiakera ezinbestekoa ikusten da. Gurasoen hezitzaile funtzioetan hutsune bat detektatu da azkenaldian; eskolak informazioaren transmisioan oinarritu du bere zeregina eta baloreen transmisioan eta autonomia pertsonala garatzen laguntzera ez da iristen. Honela, eskola eta familiatik kanpo gelditzen den esparrua, esparru hezitzailea dela onartu beharra dago eta nolabait, beste eragileen lanaren osagarri izan dadin nahi da. Administrazioaren lan esparrua, beraz, heziketa prozesu horretan laguntzean datza:

- Batetik, nerabeek bizitzako zenbait alorri buruzko informazioa behar dute.
- Bestetik, pasibotasunetik partehartze aktiborako bidea ibili behar dute beren ekimen propioak aurrera eramateko.
- Azkenik, aisia hezitzailearen beharra ikusten da, hau da, beti ere haur eta nerabeen eskariak kontuan harturik, astialdian antolatzen diren eskaintzak helburu hezitzailea izateko beharra: gaztetxoek oreka pertsonala lantzea, kritikotasuna bultzatzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonalari bide ematea.

Nerabeen beharrei erreparatuta, era esplizituan eskatzen dutena hau da: ondo pasatzea, libreki hautatzea zer egin, nola eta noiz, eskaintza deigarria eta interesgarria izatea, lagunartean gozatzea eta dibertitzea, denbora libre gehiago, lagunekin egoteko leku bat, beraientzat erreferente diren ereduak helduekin (gurasoak ez direnak) arreta, entzutea eta komunikazioa. Aitzitik, gurasoek eskatzen dutena hau da: seme-alaben segurtasuna bermatzea, aisialdian egiten diren ekintzat "probetxuzkoak" izatea, aisia eskaintzaren bitartez baloreak lantzea, seme-alabek azaltzen dituzten jarrera arazoak zuzentzea.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### **1.2.3. Gazteen (18-29) egoera eta beharrak.**

Arrazoi desberdinak tarteko, gaztaroa luzatu egin da eta ondorioz ezin dugu gazteriar buruz hitz egin, oso egoera ezberdinetan dauden gazteei buruz baizik. Honela, ibilbide indibidualizatuagoak aurkituko ditugu, bizi-ibilbide linealak desagertu direlako (ikasketak bukatu, lana topatu, etxebizitza lortu, bizi proiektu pertsonala aurrera eraman).

Bestade, gazteek beren sozializazioa eta gizarte integrazioa baldintzatzen duten alorretan (lana, hezkuntza, etxebizitza, osasuna eta aisia) behar bereziak dituztela ikusi da: langabezia jeitsi da baina gazteei ematen zaien lanaren kalitatea eskasa da, aldi baterakoa eta gutxi ordaindutakoa. Gainera, ezegonkortasuna eta behin behinekotasuna dira nagusi. Honela, etengabeko prestakuntza jasotzea ezinbestekoa da.

Etxebizitzari dagokionez, hau lortzea zailago bihurtu da: erosteko prezioak oso altuak dira eta alokatzeko aukera gutxi dago. Finean, gizartea balioen krisialdi batean murgilduta dagoela esan genezake. Inmigrazioa eta gizarte-bazterkeria ere handitu egin dira.

Beren familiarekiko dependentzia ekonomikoa dute gazteek eta emantzipatu nahi baina ezin dutenen kopurua altua da. Honela, emantzipaziorako ibilbideak aldatu eta biderkatu egin dira; denboran zehar luzatzen dira, ibilbide zatituak dira, konplexuak.

Lanak gizarteratzeko eta gizartean onartua izateko bitarteko gisa daukan tradiziozko egitekoa hausteak (lan merkatutik at egotea, diru sarrera eskasak eta prekarietate ekonomikoa...) gazteak urruntzera bultzatzen ditu eta ondorioz, bizitzaren beste alderdi batzuei ematen diete garrantzia handiagoa, hala nola, pertsonen arteko harremani.

## **1.3. ITSASONDOKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN EGOERA ETA BEHARRAK.**

### **1.3.1. Itsasondoko haur,nerabe eta gazteen errealitatea.**

Errealitateari so eginez, Itsasondo, herri txikia izaki, egun 165 haur,nerabe eta gazte daude.

#### **Haurren errealitatea**

Urte bereko haur oso gutxi daude, kinta bereko bi haur egon daitezke, eta honek adin ezberdinetako haur-gaztetxoak nahastea dakar. Gurasoek, haurrekin kanpora joateko joera dute asteburuetan eta oporraldietan. Beraz, oso haur gutxi geratzen da herrian. Honek ere, ekintzak antolatzerako orduan zailtasunak ekartzen ditu eta ondorioz, haurrentzako dagoen aisialdiko ekintzak eta eskolaz kanpoko ekintzak oso urriak eta puntualak izaten dira; beraz, zerbait egin nahi badute kanpora joan beharra izaten dute.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



Itsasondoko haurren eskolarizazio matrikulak azken urtetan gora egin du. Itsasondoko haur eskola ipintzeak hau sustatzea lagundu du, gurasoek haurtzaindegia herrian bertan edukitzean eta haurra bertan matrikulatzean haur hezkuntza eta lehen hezkuntza herrian bertan egitea bideratzen baitu. Itsasondo bezalako herri batentzat haurrak herrian eskolaratzea oso garrantzitsua da herriarekiko lotura eta herri mailako izaera lantzeko.

### Nerabeen errealitatea

Itsasondon, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza eskaintzen dituen herri eskola dago bertan. Azpimarratu behar da, ordea, aldamenean eta oso gertu herri handi bat daukala, Ordizia. Horrela, Bigarren Hezkuntzako ikasketak burutzera Ordiziako institutura joaten dira gaztetxo gehienak. Eskola aldaketa honek, ikasleek kanpora atera beharra ekartzen du eta honek gaztetxoek herriarekiko haustura bat izatea ahalbideratzen du.

12 urterekin Ordiziako eskolara joatean, bertako lagunak egiten dituzte. Lehenengo urtean Itsasondoko lagunekin lotura mantentzen jarraitzen dute baina hiru urtera lagun taldeak desagertu egiten dira eta ez da jarraipenik ematen, bizimodu ia guztia Itsasondotik kanpo egiten baitute bai aste egunetan eta aste bukaeran. Honek guztiak nerabe eta gazteek duten herriarekiko atxikimendua eta euren arteko harremana ahultzea dakar. Saiakerak egin arren, ekintza gutxi antolatzen dira gaur egun, zailtasunak egoten dira taldeak osatzeko. Adin tarte bereko gaztetxo gutxi daude eta kinta bereko lagun taldeak osatzeko zailtasunak egoten dira.

Gauzak honela, gaztetxoek herriarekiko lotura galtzen dutenean, herri dinamikan sartu eta parte hartzeko motibazio eza handitu egiten da.

### Gazteen errealitatea

18-29 urte bitarteko gazteek herritik kanpo pasatzen dute euren denbora gehiena. Ohikoena lagun taldearen herrira joatea da: Ordiziara, Legorretara, Zaldibiara,...

Itsasondoko Udalak baditu gazteei bereziki bideratutako ekipamenduak; hala nola, gaztetxea eta entsegu lokala. Azken boladan, gazteak gaztetxea erabiltzeak, herrian geratzea ahalbideratzen du, eta bide batez bertan geratzeko motibazioa sustatu du.

Etxe berriak eraikitzen ari direnetik eta herrian bertan zenbait baliabide ipintzen (haur eskola, etxebizitzak alokairuan,...) hogeita hamar urteko gazteak, bikoteak,... herrian geratzea ahalbideratu du.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



Azpimarratu behar da, herri txikia izateak, gazteek euren artean harreman estuak izatea ahalbideratzen du. Jende dinamikoa eta konpromiso handikoa dago. Finean, eragile potentzialak dituen herria da Itsasondo.

### **1.3.2. Itsasondoko haur, nerabe eta gazteen beharrak.**

2007.urtean egin zen aurrediagnostikoan jasotakoa oinarri izanik, herriko haur, nerabe eta gazteen behar esanguratsuenak segidakoak dira:

- Haur, nerabe eta gazteek aisialdi aukera ezberdinak edukitzea .
- Haur eta gazteen parte-hartzea euren artean sustatzea eta bermatzea.
- Herriarekiko lotura ez galtzeko, herri izaera eta sena lantzearen beharra.
- Haur,nerabe eta gazteei zuzendutako ekintzen eskaintza jarraia eta egonkorra ahalbideratzea.
- Gazteria politikak garatzeko sarean kokatuko diren eta adinari egokituak egongo diren espazio erreferenteak izatea. .
- Haur, nerabe eta gazteei interesatzen zaizkien gaiei buruzko informazioa eskaintzea.
- Erreferentea izango den giza baliabidea egotea herrian: gazteria dinamizatzailea.



ITSASONDOKO  
UDALA



## 2.- HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN DEFINIZIOA.

### 2.1. GAZTERIA KONTZEPTUAREN BILAKAERA HISTORIKOA

**Gazteria kontzeptua aldatzen joan den kontzeptua da. Horrela, momentu historikoaren arabera, gazteria ulertzeko era ezberdina izan da.** Hau horrela gazteria kontzeptua ez da zerbait “ estankoa ”, alda daitekeen kontzeptua baizik eta moldagarria den kontzeptua da.

Gaur egun gazteriari buruz dugun kontzeptua ez da beti existitu, ez gure gizarte mendebaldarrean ezta ere beste hainbat kulturetan. **Gazteria edo “ gazte izatea” zer den irudikatzeko modu ezberdinak egon dira, gizartean ematen diren aldaketek, gizarte garai ezberdinek,... gazteengan eta gazterian eragin zuzena baitute.**

Adibidez , aintzinako zenbait kulturetan haurrak adin jakin bat lortzen zuenean heldu izateko prestu zegoen. Heldutasunerako pausu hori erritual ezberdinen bidez gauzatzen zen. Aintzinako erregimen garaian, haur/nerabe eta gazte batek heldutasuna lor zezakeen berezko familia bat osatzen zuenean edo aitarengandik herentzia bat jasotzen zuenean. Horrela, adibidez, 40 urteko pertsona batek gaztea izaten jarrai zezakeen eta 15 urteko nerabe bat heldua kontsideratu.

Industrializazio garaian, gizartean emandako aldaketa garrantzitsu batzuen ondorioz ( jaiotze tasaren beharakada, gurasoek hartzen duten ardura euren haurren heziketan, nerabeen eskolarizazioa,...), aldaketa ideologiko garrantzitsua ematen da eta honek gazteria ulertzeko eran ere eragina izango du: adin bereko “ nerabeak “ eskolaratzen hasten dira, adin berekoak elkartzen hasten dira ( “ *Gillis, 1974:.. por ello se puede afirmar que en este momento es cuando se descubre la adolescencia, entendida como un periodo turbulento en el que el joven es vulnerable a cualquier influencia negativa* “).

Baiezta genezake, beraz, gizartean ematen diren aldaketek, gizarte garai ezberdinen ikuspegiak,... gazteria ikusteko, ulertzeko moduan, gazteengan eta gazterian eragin zuzena dutela, eta honen arabera gazteriari buruz izango dugun kontzeptua modu batetara edo bestera ulertzen dela eta ezaugarri batzuk edo beste batzuk izango dituela. Eta honek modu batetara edo bestera lan egitea baldintzatuko duela.

**Gazteak ikusteko moduak korrante ezberdinen arabekoak ere izan dira** (ikuspegi marxista, psikologikoa, antropologikoa ), diziplina batzuk gazteriaren ezaugarri batzuetan eragiten dute eta beste batzuk besteetan.



## ITSASONDOKO UDALA



Gaur egun, esan genezake, gazteen artean ezberdintasun oso nabariak daudela, ez bakarrik adinekoa. Besteen artean, gazteak “horrelakoak” direla pentsatzen ohi da:

- Nerabeak bihurriak dira eta erakundeetatik at bizi nahi dute.
- Nerabearoa bizitzaren etapa bat da, krisialdi-etapa bat, aldaketen garaia.
- Nerabearoa gizarte gehienetan ematen den garaia da: berez gaztetxoei erreprodukzio-funtzioetatik liberatzen zaie zenbait urtez. Gizarte gehienetan ematen ohi den garaia da.
- Gaztaroa, aldiz, gizarte aurreratuetan soilik ematen den garaia omen da eta norbanakoak gizartean integrazio osoa lortu arte luzatzen da (30 urte? 35 urte? zaila da muga bat jartzea).
- Batzuen ustez, gazte guztiek amankomunak diren ezaugarri psikologiko batzuk dituzte, baita etapa horren berezkoak diren ezaugarri fisiologikoak ere.
- Besteen aburuz, ordea, gazte denak ezin dira zaku berean sartu, gazte izateko era ezberdinak daude; izan ere, gazte azpi-kultura ezberdinak daudela aldarrikatzen dute.
- Askok gazteei leporatzen dizkiete gizartean ematen diren arazoak.

Adin bereko gazteak, gainontzeko hiritarrak bezalaxe, anitzak dira:

- Gizarte egoeran, baita egoera familiarrean ere.
- Ondasun ekonomikoan.
- Ondasun kulturalen (ezagutzetan).
- Ondasun eskolarrean (tituluetan, agirietan).
- Gizarte-ondasunean (baliabideak lortzeko baliagarriak izan daitezken giza-harremanak).

Beste herritarren kasuan bezalaxe, herritar gazteek (0-29) behar batzuk, eskubide batzuk eta eginbehar batzuk dituzte. Berez, oinarrizko beharrak komunak dira beste herritarren beharrekin alderatuta: bizitzeko leku bat izatea, dirua irabazteko eta profesionalki garatzeko lan bat edukitzea, beste herritarrekin erlazionatzea, haien interesekoak eta herritar guztion interesekoak diren gaietan parte hartzea eta eragitea, eta abar.

Gazteen kasuan berezia dena hau da: ibilbide bat egiten ari dira, haien identitatea sortzeko eta haien lekua gizarte batean kokatzeko. Haien adinarentatik eta beste faktoreengatik (gizartean azkeneko urteotan emandako aldaketak, enpleguaren prekarietatea, etxebizitzaren prezioaren igoera, ... ) ez daude aukera berdintasuneko momentu batean eta haien helburua lortzeko ez dute baliabide nahikorik. Ezin dugu ahaztu gazteak zerotik edo baliabide gutxirekin hasten direla ibilbide hori egiten. Gainera, gaur egun, norbere lekua topatzeko bide hori ez da lineala, joan eta etorrikoa izaten da askotan, eta gizartean integratzeko ere modu anitzak zabaldu dira; hortaz, norbere bizi-proiektuarekiko erabakiak hartzeko uneak behin eta berriz azaltzen dira eta erabaki horiek



**ITSASONDOKO  
UDALA**



era informatu eta kontziente batean hartzeko laguntza gero eta beharrezkoagoa egiten da.

## **2.2. GAZTERIA ARLOAN ESKU HARTZEKO MODUEN BILAKAERA HISTORIKOA**

Gazteria kontzeptuarekin gertatu den bezala, gazteria politika ezberdinak egon dira historian zehar. Politika ezberdin hauek, garaian garaiko egoeraren arabera izan dira. Politika ezberdin hauek, gizarte garai horretan eman ziren aldaketa, egoera,... baldintzatuak izan dira.

Gazteria arloan esku hartzeko moduen bilakaera historikoa ulertzea garrantzitsua da, honek geroko gazteria politiketan eragina izango duelako, geroko historian eragina izango duelako.

Garaian garaiko politika ezberdinek, gazteria kontzeptu ezberdina izango dute eta honek gazterian lan egiteko eran ere eragina izango du. Garapen ezberdinak egon dira horrela gazteria politiketan:

### **Aisialdi politikak :**

Franco hil ondoren, aisialdi eskaintza zen nagusi. Hala ere, artean ez zegoen egitasmo hezitzaile, ezta garapen pertsonalaren inguruko egitasmo ere. Gazteen arazoak aurre egitea eta irtenbidea bilatzea baino gehiago, arazoak ekiditzearen aldeko politika egin zen.

### **Gazteria zerbitzuak:**

80. hamarkadan, " gazteen hiritar izaera " gazteria arloaren inguruko esku-hartzearen planteamenduan kontuan hartzen hasten da; eta, ondorioz, aktibitateen ordez, baliabideak edo tresnak eskaintzen hasten zaizkie. Informazio zerbitzuak, aholkularitza zerbitzuak eta aisialdi eskolak garai honetakoak dira.

**1985.urtean Gazteria Politika berrien abiapuntua ematen da**, oso garrantzitsua izango dena eta aldaketa handia suposatuko duena. Garai honetan, **gazteria politikaren liburu zuria argitaratu zen** non gazteria politika integralen aldeko apustua sustatu nahi zen. Administrazioaren eta gizarte eragileen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren beharra orduan hasi zen sumatzen.



ITSASONDOKO  
UDALA



### Emantzipazio politikak:

Politika hauek sortzen diren garaia krisialdi ekonomikoa ematen den garaia da. Krisialdiak gazte asko lan gabe geratzea ekarri zuen. Lan ezak gazteak beranduago emantzipatzean eragina izan zuen.

Egoera honen aurrean, gazteei euren emantzipazioan lagundu behar zen ustea zabaltzen da. Politika berri hauen ardatza emantzipazioa izango da.

Gazteria Politika integralen helburua **gazteari emantzipaziorako igaroaldian laguntzea** eta emantzipazio hori erraztea izango da. Burutzen diren politika hauek gaztearen ibilbidea erraztea izango dute helburu, bizi kalitatea hobetuz eta bide batez emantzipazioa ahalbidetuz, horretarako gazteek dituzten beharrei erantzunez: enplegua, etxebizitza, aisia eta kultura, osasuna etab...

Politika integralak erakundeen lan egiteko eran berrikuntza suposatu zuen, eraginkortasunez lan egiteko tresna moduan hartu zen, gazteria " kontzeptu bakar " moduan apurtzen lagundu zuen eta beste gizarte esparru batzuei zuzendutako esku-hartze soziokulturaletarako erreferente bihurtu zen: hirugarren adina, emakumea, gutxituak,...Emantzipazio politiken tresna metodologikoa Gazte Planak izan dira.

### Politika afirmatiboak:

Emantzipazio politiken aurrean, politika berri bat agertzen da, igaroaldian bakarrik lagundu beharrean, gazteen adierazpen modu berriei erantzuna eman behar zaiela azpimarratzen duena, gazteria berezkoa den garai bat moduan definitzen duena , balore eta ezaugarri propioekin. Politika afirmatiboek ikuspuntutik bost ardatz nagusik bereizten dute gazteria egoera berria: autonomia , mugikortasuna, esperientzia, adierazpena, hiritartasuna.

Politika **afirmatiboek ikuspuntutik gaztaroak badu berezko balorerik, landu eta sustatu beharrekoa**. Politika integralen ikuspuntutik gaztaroa **igaroaldia da**. Politika afirmatiboak eta emantzipazio politikak kontrajarrita daudela dirudi, baina bata bestearen gehigarri izan daitezke.

Adibidez, nerabe eta hurrekin ( 3-17 urte bitartekoak ) politika afirmatiboak landu daitezke gehiago ( adierazpena, mugikortasuna, esperientzia,sormena,...). 18 urtetik gorako gazte-helduekin ( 18-29 ) emantzipazio politikak landu daitezke sakonago (enpleguarekin, etxebizitza gaiekin,lan gaiekin, ...). Hau horrela, esan genezake, politika modu batek ez duela aurrekoa ezeztatzen baizik eta politikak bata bestearen gehigarri izan daitezkeela.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### **3. ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA GAZTERIA POLITIKETAN.**

#### **3.1. ADMINISTRAZIOAREN PARTE-HARTZEAREN ZERGATIA GAZTERIA POLITIKETAN.**

Haur, nerabe eta gazteak eskubidedun hiritarrak dira, premia eta behar bereziak dituzten hiritarrak dira; hau horrela, administrazioak edozein herritarrei eskaintzen dien zerbitzuak kontuan izanda (euskara, gizarte zerbitzua, hirugarren adina, aukera berdintasuna,...), haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzuak ere eskaini behar ditu premia eta behar berezi horiei ere erantzun behar die administrazioak.

Gaur egungo gizarte egoeran, beraz, Haur eta Gazteria zerbitzuak oinarrizko erremintak dira:

- Eskubideak urratzen zaizkien eta egoera berezian edo/eta behar bereziak dituzten adin txikiko eta gazteen eskubideak babesteko.
- Orokorrean, haur,nerabe eta gazte guztien eskubideak sustatzeko.

Administrazioaren oinarrizko zereginetako bat haur,nerabe eta gazteen eskubideak sustatzea da, haur, nerabe eta gazteak hiritar eskubidedunak baitira; haur,nerabe eta gazteen bizi baldintzak hobetzea, horretan laguntzea, behar bereziak dituztenak kontuan izanda, administrazioak horretarako mekanismoak eta erremintak ipini behar ditu, haurrek eta gazteek dituzten premia eta behar horiei erantzun behar die. Hau guztia, Gazteria zerbitzutik garatu eta sustatuko den lau programaz osaturiko arreta zerbitzuaren bidez, ekipamendu eta garatzen diren eskaintzen bidez, gazteria arloan lan egiten duten eragile ezberdinekin elkarlana sustatuz,... garatuko du. Hau, haur eta gazteria sailetik egin beharreko betebeharra da.

Administrazioak eskaini behar dituen zerbitzu eta eskaintza hauen erabilerak, haur, nerabe eta gazteen eskubideak sustatzea eta premia horiei erantzutea ahalbideratzen du, heldutasun bide horretan laguntzen du, hala nola, heziketa eta gizarte parte hartzea, informaziora sarbidea, adierazpena, helburu hezitzaileak dituen eskaintza eta espazioak eskeintzen zaizkie, erreferenteak diren eta funtzio hezitzailea betetzen duten profesional ezberdinak, haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatzea, ...

Administrazio bakoitzaren ardura hori izango da: euren herriko gazteekin egingo duten lana zein helbururekin egingo duten definitzea, bere politikak definitzea, zer lortu nahi duten lan horrekin,... hau administrazio bakoitzari dagokion zeregina eta erantzunkizuna da.

Laburbilduz, haur, nerabe eta gazteak heldutasun, heziera prozesu baten daude, edozein herritar bezalaxe premia eta behar batzuk dituzte, eta administrazioak hor lagundu behar du, horretarako mekanismo eta bitartekoak ipiniz.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### **3.2. ADMINISTRAZIO MAILA BAKOITZAREN ESKU-HARTZEA GAZTERIA POLITIKETAN.**

Gazteria politiketan administrazio maila bakoitzak duen esku-hartzea desberdina da, hala nola, Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta kasu honetan Itsasondoko Udalak dituen eskumenak eta zereginak gazteria politikari dagokionean desberdinak dira.

#### **Eusko Jaurlaritza**

Euskal Autonomi Erkidegoko autonomia onartu eta horrekin batera Eusko Jaurlaritzak gazteria arloko eskuduntzak bereganatu zituen. Horrela, Eusko Jaurlaritzak, gazteria arloan eskumen guztiak ditu. Euskal Autonomi erkidegoan lehenengo Gazte Planaren indarraldia 1999tik 2002ra artekoa izan zen ( emantzipazio politiken tresnetako bat Gazte Planak izan dira ). EJK I.Gazte Plan hau egiteko ezinbestekoa ikusi zuen, ordea, gizarte eragileek parte-hartzea ere. Horrela, lehen Gazte - Planaren indarraldia ( 1999-2001 ) bukatu gabe zegoela, II Gazte Planari ekin zitzaion ( 2002-2005).

#### **Gipuzkoako Foru Aldundia**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak, 0-29 urte bitarteko haur,nerabe eta gazteen heziera eta emantzipazio prozesua erraztea du helburu; horretarako sare lana bultzatzen du zerbitzu, agente, ekipamendu,... artean. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak ere bere Plan- Estrategikoa egin zuen 2001. urtean. Plan honek, besteak beste, zerbitzua udaletara berbideratu beharra jaso zuen. Hau horrela, Foru Aldundiko Gazteria Zerbitzuak hainbat zerbitzu eskaintzen dizkie Gipuzkoako Udalei Haur eta Gazteria Politikak udaletan lantzeko. Hauek dira gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuak:

- Dokumentazioa eta ikerlanak.
- Prestakuntza.
- Aholkularitza.
- Baliabideen transferentzia.

Zerbitzu hauek Gazteria Politikak Udalean landu behar diren lau programa estrukturalak garatzeko eskaintzen zaizkie udalei.

#### **Itsasondoko Udala**

Udalaren esku-hartzea berriz, Udalak gazteria politikak garatzeko lau programa estrukturalaz osaturiko arreta zerbitzuaren eskaintzan oinarritzen da: informazioa, aisia hezitzailea, sustapena eta emantzipazioa.



ITSASONDOKO  
UDALA



### 3.3. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAK EPE LUZEAN.

Haur eta Gazteria politikaren helburu nagusia **haur, nerabe eta gazteen heziketa prozesua, heldutasunera iristeko prozesua eta emantzipazio prozesua erraztea da, beti ere hiritartasun aktiboaren kontzeptutik abiatuz.**

Haur eta gazteen prozesu hau errazteko, Haur eta Gazteria zerbitzuak, lau programa estrukturalaz osaturiko arreta zerbitzuak abian jarri beharko ditu:

1. **INFORMAZIO PROGRAMA:** Gazteen eskura jartzen den baliabidea da informazioa, gizartean integrazio osoa lortu dezaten eta bizi-proiektu propioa eta autonomia izan dezaten.
2. **AISIA HEZITZAILE PROGRAMA:** Gozamen esperientzia ahalbidetzeaz gain, hezitzaileak diren helburu batzuk lortu nahi dituen eskaintza da, beti ere norbanakoak modu askean aukeratzen badu eta norbere denbora librean garatzen baldin badu.
3. **SUSTAPEN PROGRAMA:** Gazteen adierazpena, ekimena eta gazteen parte-hartzearen bultzatze lana da.
4. **EMANTZIPAZIO PROGRAMA:** Gaztarotik heldutasunerako igaroaldian lehen mailako garrantzia duten bizi-baldintzak hobetzea da. Helburu hau lortzeko lan transbersala egin behar da batik bat: etxebizitza, enplegua.

Epe luzean programa horiek guztiak lantzea izan behar da Haur eta Gazteria Politikaren **helburu nagusia**. Ezin dugu ahaztu helburu horrek epe luzeko proiektzioa duela. Hau da, Haur eta Gazteria Zerbitzua sortzea epe ertain eta luzean jarraipena beharko duen prozesu baten lehenengo pausu edo erabakia da. Izan ere, nahiz eta zerbitzua sortu berria den, ezberdina da zerbitzua sortzea eta zerbitzu horrek udalean nahiz udalerrian dagokion lekua lortzea.

Beraz, helburu nagusira iristeko **helburu zehatz bat** ezarri beharra dago: Haur eta Gazteria Zerbitzua Udalean eta udalerrian errotu, sustraitu, gaur egun gazteriatik lantzen ari dena.

### 3.4. HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAK GARATZEKO BALIABIDEAK ETA TRESNAK.

Atal honetan, Haur eta Gazteria Politikak martxan ipintzeko behar diren gutxieneko baliabideak eta tresnak zeintzuk diren jorratuko dira: koordinaziorako tresnak, ekipamenduak eta baliabideak .



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## 1. Koordinazioa: udal barruan nahiz kanpoko eragileekin.

Koordinazioa, bi mailatan landu behar da: udal mailan eta bestetik, udalerrri mailan.

### A) Lehen mailako koordinazioa: Udal barnekoa.

#### Haur eta gazteria gaiak jorrazteko batzordea.

Udalak, haur, nerabe eta gazteen gaiak aztertzeke eta erabakiak hartzeke " mahaia " eduki behar du. Gune honek helburu bat izan behar du: Udaleko haur, nerabe eta gazteen autonomiaren garapenean eta heldutasunerako bidean laguntzea. Eta horretarako :

- Udaleko haur, nerabe eta gazteei buruzko **informazioa trukatu.**
- **Hausnarketarako** lekua izan.
- **Adostasuna lortzeko** tokia izan behar du Udalak.

Haur eta gazteria alorrean, martxan ipiniko diren eskaintza eta zerbitzu ezberdinen inguruan hausnartu, informazioa bateratu eta erabakiak hartu beharko dira. Gune hau sortzeaz gain, honen dinamika eta funtzionamendua definitzea beharrezkoa izango da.

### B) Udal Sail ezberdinekin koordinazioa.

Haur eta gazteria politika egiteko ezinbestekoa da eragile ezberdinen arteko lana koordinatzea. Haur eta gazterriako bizi baldintzetan eragina duen sail edo zerbitzuekin modu koordinatu batean lan egin beharko da (hirigintza, kultura, gizarte saila ) haur,nerabe eta gazteen emantzipazio prozesuan denek eragina dutelako.

Udal sail ezberdinekin koordinazioa gazteria politikak garatzeko ezinbesteko bitartekoa da.

## 2. Ekipamenduak.

Ekipamendua, zerbitzu, programa eta ekintza ezberdinak garatzeko azpiegiturari deitzen zaio. Ekipamendua Haur eta Gazteria Politikak garatzeko ezinbesteko **bitartekoa** da; beraz, ekipamendua ireki aurretik , Gazteria politikaren helburuak finkatu behar dira eta ondoren ekipamenduarenak zehaztuko dira, hau da, zertarako den ekipamendua. Ekipamendua diagnostiko batean oinarritu behar da beti: hau da, zertarako da? Eta norentzat da ? Zein helburu ditu? Ekipamendu bakoitzak bere adin tarteak, helburuak eta zerbitzuak eduki behar ditu.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### 3. Giza baliabideak

Beharrezko baliabideak helburuen menpekoak dira, hau da, helburuak aldatu ahala, litekeena da, helburu horiek betetzeko baliabideak ere aldatzea. Hau horrela, helburuen atala berrikustearekin batera edo aldatzen bada, baliabideen atala ere berrikusi beharko litzateke.

Maila teoriko batean, hainbat profil ezberdin bereiz daitezke haur eta gazteria arloko lanean:

- Haur eta gazteria dinamizatzailerak.
- Hezitzaileak
- Informatzaileak

Kontuan eduki behar dugu, tokian tokiko errealitatea ezberdina dela eta honen arabera langileen funtzioak tokian tokiko errealitatearen arabera molda daitezkeela. Udalerriaren tamaina eta udalak dituen baliabideak, hau guztia definitzean, eragina izango du.

#### 3.1. Hezitzailea:

Hezitzailea honako zerbitzuetan kokatzen da: haur eta nerabeei zuzendutako ekipamenduetan eta jarraipena duten aisia hezitzaile zerbitzuetan eta eskaintzetan.

Hezitzaile baten **funtzio nagusiak** hauek dira:

- Haur eta nerabeen behar eta eskariak ezagutu.
- Ekipamenduan garatu beharreko programak (informazioa, aisia hezitzailea, sustapena eta emantzipazioa) eta zerbitzuak planifikatu, kudeatu eta zerbitzu eta programak ebaluatu.
- Lan guztietan honakoa landu: integrazioa, genero berdintasuna eta euskararen normalizazioa.
- Udalarekin koordinatu.
- Herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinatu.

#### 3.2. Informatzailea.

Informatzailea da haur, nerabe eta gazteei zuzendutako informazio zerbitzuaren dinamizatzailerak.

Informatzaile baten **funtzio nagusiak** hauek dira:

- Gazteen informazio beharrak ezagutzea.
- Beharrei erantzuteko informazioa egokitua prestatzea. Informazio orokorra eta tokian tokikoa izango da.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



- Informazioa haur, nerabe eta gazteentzat eskuragarri jartzea.
- Informazio zehatz bat jasotzeko bideak eskaintzea.
- Nerabe eta gazteei euren kabuz informazioa lortzen irakastea.
- Lan guztietan honakoa landu: integrazioa, genero berdintasuna eta euskararen normalizazioa.
- Udalarekin koordinatzea.
- Herriko beste eragile eta zerbitzuekin koordinatzea.
- Ebaluazioa.

#### 4. Baliabide ekonomikoak.

Aurrekontua tokiko egoerara egokitu behar da, bertako errealitatea kontuan izanda. Hala ere gutxieneko baldintzak bermatu behar ditu:

- Langileen lan baldintza egokiak bermatu behar ditu.
- Espazio fisiko edo azpiegitura egokia izateko nahiko izan behar du.
- Landuriko eta onarturiko proposamenetik abiatutako planifikazioa aurrera eramateko behar diren baliabide ekonomikoak bermatu behar dira alegia.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **4. ITSASONDOKO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN BILAKAERA HISTORIKOA ETA EGUNGO EGOERA.**

### **4.1. ITSASONDOKO HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HISTORIA LABURRA ETA EGUNGO EGOERA**

Itsasondoko Udala, udal txikia izaki, ez du Gazteria Sailik. Gazteriari dagozkion gaiak, Kultura Sailean landu eta bertatik bideratu izan dira. Udalak azken lau urte hauetan bizi izandako egoera bereziaren ondorioz, koordinazioa eta egonkortasuna bermatzea zaila izan da.

Gazteria Sailak ez dauka aurrekontu bereziturik, hau da, Kultura Sailaren barnean dago gazteriako aurrekontua. Kulturaren aurrekontuaren barnean, orain arte, gazteriari eskaintzen zitzaion diru kopurua 2.500 eurotako zen. Diru hau, herriko gazte taldeei ematen zaie, beraien gastuei aurre egiteko.

Gaur egunera arte Udalak, ez du izan, Gazteria gaiak jorrazteko gune edo batzorde bereziturik; gai guztiak kultura alorretik bideratu izan dira.

Herrian hainbat eragile aritu izan dira lanean urtean zehar haur, nerabe eta gazteei ekintzak bideratzeko, baina hauek ere helduei zuzendutako ekintzak izan dira, herri mailan adin tarte guztiei zuzendutako ekintzak izan dira landu direnak. Ekintza hauek herriko kultur taldeak edo/eta emakume taldeak bideratutakoak izan dira.

Udalak ,gazteria politikak garatzeko, lau programa estrukturaleraz osaturiko arreta zerbitzuaren eskaintzan oinarritu behar duela bere zerbitzua aipatu dugu. Itsasondon, lau programaz osaturiko arreta zerbitzu hau modu xalo batean garatzen da:

#### **Informazioa**

Haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko informazio zehatzik eta bereziturik ez da lantzen. Eskaintzen den informazioa herritar orori bideratua izanen da.

#### **Aisia hezitzailea**

Lantzen den eskaintza gehiena herritar guztiei begira egiten da; hauek urtean zehar antolatzen diren ekintza puntualak izaten dira. Astean zehar haurrentzako eskaintza estraeskolarra dago: musika tailerra, antzerkia, eskulanak, psikomotrizitatea, hilabetean behin ipuin kontalaria eta urtean behin olentzero festa, udako ekintzak, ijitu eguna, irteerak, etab.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## Sustapena

Gazteen adierazpena sustatzea helburu duten formazio ikastaro puntualak antolatu ohi ditu Udalak (sukaldaritza, zineforum, etab.). Bestalde, lokal uztea gauzatzen du Udalak (gaztetxea, entsegu lokala, guraso txokoa). Hauen jarraipena ez da gauzatzen.

## Emantzipazioa

30 urte bitarteko gazteentzat alokairu aukera ere eskaintzen da.

2007. urtean, Itsasondoko Udalak, GFari eskaera bat egiten dio Itsasondon nerabeekin gazteria politikak garatzeko zein bide egon daitezkeen jakiteko. Bilera baten bidez, Aldundiaren lan dinamika eta hortik aurrera eraman beharreko pausuak zeintzuk diren azaltzen dira. Hau horrela, bi erakundeen arteko adostasunarekin batera, 2007. urtean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Itsasondoko Udalaren artean lankidetzaz hitzarmena sinatzen da, Itsasondon proposatuko den lan proposamena martxan jartzeko. Horren ondorioz, 2008. urtean, Haur eta Gazteria dinamizatzailearen kontratazioa burutzen da. Gaur egun, haur, nerabe eta gazteentzako eskaintza definitzen, garatzen eta Gazteria Zerbitzua udalerrian errotzen ari da.

## **4.2. ITSASONDON HAUR ETA GAZTERIA POLITIKAREN HELBURUAK LORTZEKO BALIABIDEAK ETA TRESNAK.**

Itsasondon haur eta gazteria politikaren helburuak lortzeko bitartekoen egungo egoera honako hau da:

### 1. Koordinazio tresnak:

#### 1.1. Lehen mailako koordinazioa: Udal barnekoa.

Itsasondoko Udalak, haur,nerabe eta gazteen gaiak aztertzeko eta erabakiak hartzeko mahaia eduki behar du, gaur egun ez dago horrelako gun e estrukturaturik.

#### - Udal Sail ezberdinekin koordinazioa.

Itsasondoko udalaren errealitatea kontuan eduki beharko da koordinazio hau definitu eta lantzerako orduan, kontuan izan behar baitugu, Itsasondoko udalaren errealitatea zein den (gizarte laguntzaile bakarra dago , 6 herrietako langilea dena eta Itsasondon egun bat egoten dena, arkitektoa, astean 4 orduz egoten da eta idazkaria, administraria eta harrerako langilea Arama, Altzaga eta Itsasondoko langileak dira eta laister aukera berdintasuneko teknikaria ). Horrexegatik, ezinbestekoa izango da, koordinazio guneak



**ITSASONDOKO  
UDALA**



identifikatzea eta ahal den neurrian sistematizatzea - noiz bildu, zenbatero, zertarako, bakoitzaren funtzioak,...- Zerbitzua aurrera ateratzeko gutxieneko koordinazioa beharrezkoa baita. Lankidetzak hau: informazioa trukatzeko, kontsultarako, hausnarketarako, ... guneak izan daitezke. Lankidetzak mahai hau adostu eta definitu behar den zerbait izan beharko da.

## 1.2 Bigarren mailako koordinazioa: Udalerriko mailakoa.

Gaur egun Itsasondoko haur, nerabe eta gazteria eragileen arteko lankidetzak sistema berezirik ez dago. Aurrerapausuak eman dira udalaren koordinazioan, agenda 21 programarekin; baina koordinazio hau **udal eragile ezberdinez osaturiko koordinazio markoan** kokatzen da ( lortu elkarteak, jubilatutako elkarteak, ikastetxeak, herritarrak, odol emaileak...).

Hau horrela, Itsasondoko Udalak, haur eta gazteria eragileen arteko lankidetzak sistema iraunkorra sustatu behar du, Udalak herriko haur, nerabe eta gazteen hezitzailea eta emantzipazio prozesu horretan laguntzea nahi badu. Hau guztia, informazioa, aisia hezitzailea, sustapena eta emantzipazio programen bidez garatuko da.

Lankidetzak sare honetan parte - hartuko dutenak, Itsasondoko haur eta gazteria eragileak izango dira, hala nola:

- Itsasondoko Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza,... eragile publikoak aletia.
- Herriko haur, nerabe eta gazteak. Sarearen erabiltzaile zuzenak dira hauek. Zeharkako erabiltzaileak gurasoak izango dira.
- Herriko elkarteak, haur eta gazteentzako ekintzak bideratzen dituztenak nahiz eta hauek haur eta gazteez osatua ez egon: guraso elkarteak, emakume taldeak,...

Sare hau definitu eta eraiki egin beharko da Itsasondokoan. Sarea ez da egun batetik bestera bat-batean sortuko. Poliki-poliki sare honetan sortuko diren harreman motak, intentsitate, helburu eta hainbat faktore ezberdinen menpe egongo dira, sarea definitzen hasten garenean kontuan hartu beharko direnak.

## 2. Ekipamenduak.

Itsasondoko udalak haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko ekipamenduak ditu: haurtxokoa, gaztetxea eta entsegu lokala. Ekipamenduak baditu baina helburu hezitzailearik gabeko espazioak dira, planteamendurik gabeko espazioak. Ekipamendu hauek, gaur egun, **egoteko eta neguan babesa emateko** funtzioa betetzen dute. Espazio hauen kudeaketa herriko gazte eta gurasoen esku dago. Udalaren zeregina, gaur egunera arte, lokala uztea izan da. Ez da jarraipenik bermatu.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



### Gaztetxea:

Udalak "Gaztetxe" moduan funtzionatzen duen lokala dauka. Lokal hau urte batzuetan itxita egon zen, bertan sortutako istilu batzuen ondorioz. Orain dela bi urte, gutxi gorabehera, 15-16 urte bitarteko gazte batzuk Udalarik Gaztetxea erabiltzeko baimena eskatu zioten. Gaur egun gaztetxea erabiltzen duten 9-10 nerabe/gazte daude. Bertan kuadrila ezberdinetako adin-tarteak nahasten dira. Udalarekin batera momentu puntualetan kontzertuak antolatu eta bideo emanaldiak antolatzen dira. Gaztetxea nerabeak egoteko leku bihurtu da eta aldi berean nerabeak herrian geratzeko eta kanpora ez joateko bideak irekitzea ahalbideratu du.

### Haur txokoa:

Haurtxokoaren lokala udalarena da. Lokal honen gestioa herriko gurasoen esku dago. Bertan, gurasoek antolatuta, haurrentzako ekintza puntualak garatzen dira: merendolak haur baten urtemuga ospatzeko eta eguraldi txarra egiten duenean jolasak. Bertako espazioa txikia da eta gehienetan, neguan, hotza egiten duenean erabiltzen dute, bertan goxo eta babesean egoteko. Gelan, haurrak jolasteko materiala dago: puzzleak, panpinak, margoak,... Bertara etortzen diren haurren adin tartea oso nahasia da. Udalarekin duten harremana puntuala da.

### Entsegu lokala:

Udalak badu gazteek entsaiatzeko lokala, baina gaur egun ez dauka mugimendu handirik. Udalak giltzak uzten ditu eta giltza hartzen duenak espazioaren ardura hartzen du. Udalak gutxieneko hau eskatzen du.

### 3. Giza baliabideak.

Itsasondoko Udalean dinamizatzaile baten profila proposatu da; udalean aurrera eramane nahi den gazteria proiektua garatzeko eta dauden beharrei erantzuteko: udaleko gazteria plana, koordinazio egiturak sustatu eta garatu, haur, nerabe eta gazteen beharrei eta eskariei erantzutea, ...

Haur eta Gazteria dinamizatzailea Udaleko Haur eta Gazteria sailaren erantzule zuzena izango da. Zerbitzu horren garapenaren arduraduna. Honekin batera, gazteria eragileekin batera sare lanaren gaineko erantzulea izango da.

### Haur eta Gazteria dinamizatzaile honen funtzio nagusiak honako hauek izango dira:

1. Udalak finkaturiko gazteria egitasmoa zutabe harturik haur, nerabe eta gazteei zuzendutako ekintzak bultzatu.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



2. Haur, nerabe eta gazteen beharrak atzeman eta eskariak ezagutu eta bideratu.
3. Programa ezberdinak ( informazioa, sustapena, emantzipazio eta aisi hezitzailea programak ) planifikatu, landu eta sustatu.
4. Herriko gazteekin zuzeneko harremana izan.
5. Ekipamenduak berregokitzeko proposamenak landu.
6. Ekipamenduetako programazio hezitzailea, dinamizazio lanak eta ebaluaketak.
7. Egindako lanetan integrazioa, euskara eta berdintasuna bermatu.
8. Koordinazio sarean sustatzaile eta dinamizatzaile izan.

**Bestelakoak. Zerbitzuak eskatuko dizkion zeregin administratiboak betetzea:**

1. Proposamenak diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea.
2. Beharrezko txostenak eta aurkezpenak prestatzea.
3. Udal barneko eta kanpoko bilerak antolatzea: aktak, artxiboak, deialdiak,...
4. Memoriak osatu, landu. Ebaluazio txostenak egin.
5. Urteko aurrekontuen proposamena eta hauen jarraipena.
6. Dagozkion administrazio lanak burutzea.
7. Arreta zuzena eta barne lana.
8. Zerbitzuarekin edo programarekin zerikusia duten guztiekin koordinatu.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



## **5. ITSASONDOKO LAN PROPOSAMENA.**

Haur eta Gazteria Zerbitzua, haur, nerabe eta gazteei zuzenduriko zerbitzu bat da. Haur eta Gazteria Zerbitzuak lan-ildoak finkatu behar ditu, lehentasunak eta eginbeharrak zehaztuz, hau da, udalerriko Haur eta Gazteria Politika definitu behar du.

Itsasondoko esku-hartzearen helburu nagusia da : Udalean, haur,nerabe eta gazteentzako landu nahi den eskaintza definitu eta modu koordinatu batean garatzea. Horretarako, goian aipatu moduan, Gazteria Zerbitzua udalean eta udalerrian errotu behar da.

Hau horrela, Itsasondoko Haur eta Gazteria Departamenduak 2008. urterako jartzen duen helburu nagusia Foru Aldundiarekin batera landu duen kudeaketa plana, lan proposamena gauzatzea izango da eta honen barruan lekutzen diren helburu, jarduera eta kronogramak betetzen joatea.

Proposatzen den esku-hartzea epe ertain luzekoa da, hau da, esku-hartze prozesu hau hiru urtean zehar garatzea da asmoa. Jarraian, ordea, 2008an lantzekoak izango diren lan ildoak agertzen dira, epe motzera jorratu daitekeenaren ikuspegia ahalbideratuko duena.

2008ko planak helburu zehatz hauek jasoko ditu:

- Udal mailan gazteria politikak definitu, garatu eta errotu.
- Gazteria zerbitzua definitu eta eskumenak zehaztu.
- Egungo koordinazioa aztertu, proposamenak garatu eta sistematizatu.
- Haur, nerabe eta gazteek aisialdi aukera ezberdinak izan ditzatela ahalbideratu.
- Udal herriko ekintza eta eskaintza ezberdinetan, haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatu eta bermatu erabiltzaile eta antolatzaile moduan.
- Haur, nerabe eta gazteengana informazioa iristeko estrategiak definitu eta abian jarri.
- Egun dauden ekipamenduen azterketa eta egokitzapena gauzatu.



**ITSASONDOKO  
UDALA**



Hau horrela izanik, 2008an lantzekoak diren lan-ildoak zehaztu dira:

1. Lan-ildoak: Udalean Haur eta Gazteria Zerbitzua definitu eta egituratu.

Hau da, giza baliabideak kontratatu, gazteriari dagokion eskumenak definitu eta egituratu eta Haur eta Gazteria Departamenduak behar dituen baliabideak zehaztu.

2. Lan-ildoak: Udaleko eta herriko egungo koordinazio sistema aztertu, berdefinitu, garatu eta egonkortu.

Udal eta herri mailan koordinazio sarea osatuko duten eragileak identifikatu, koordinazio sarea sortu, definitu eta bere funtzionamendua finkatu. Gazteria eragileak identifikatu eta egiten duten lana sarean koordinatu.

3. Lan-ildoak: Erabiltzen diren ekipamenduak aztertu eta proiektu hezitzaile batean oinarrituz, proposamenak diseinatu eta garatu.

Gaur egun hurrek, nerabeek eta gazteek erabiltzen dituzten espazioak aztertu, proiektu hezitzaile batetik abiatuz proposamenak diseinatu eta landutako proposamena abian jarri.

4. Lan-ildoak: Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako aisia hezitzaile programa lantzen hasi.

Haur, nerabe eta gazteentzat aisia hezitzaile zerbitzu iraunkorrak eskaintzeko estrategiak definitu eta abian jarri (aisia hezitzaile programa garatu).

5. Lan-ildoak: Haur, nerabe eta gazteen parte-hartzea sustatu aisia hezitzailearen programan oinarrituz.

Haur, nerabe eta gazteen ekimena eta adierazpena sustatu. Haur, nerabe eta gazteentzako eskaintzan herritar gazteen parte-hartzea sustatu eta ahalbidetu, erabiltzaile nahiz antolatzaile modura.

6. Lan-ildoak:

- Planifikaizioa, difusioa eta ebaluazioa.

Gazteria arloaren zereginetako bat egingo diren jarduera horiek ebaluatzea izango da, goian aipatutako helburu nagusiak lortzen ari diren edo ez jakiteko.



ITSASONDOKO  
UDALA



Balorazioaren ondoren, hutsuneak identifikatu eta horiei erantzuteko pausuak eta arduradunak planifikatuko dira, aukera ezberdinen artean aiposenak aukeratuz.

- **Generoa, euskara eta integrazioa.**

Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzu nahiz jardueretan **genero ikuspegia, hizkuntza normalkuntza eta elkarbizitza** zeharka lantzea izango da helburu ere.

Lau programak lantzeko orduan genero ikuspegia eta aukera berdintasuna, hizkuntza normalkuntza eta integrazioa zeharkako balore modura ere kontuan hartu behar dira:

- Neska-mutilen egoera eta behar desberdinak kontuan hartu behar dira eskaintza egiteko orduan. Generoak eragina du eskaintzak neskengan eta mutilengan sortaraz dezakeen interes mailan.
- Hizkuntza normalkuntza bultzatzea.
- Eskaintzari buruzko informaziora eta eskaintzara bertara iristeko erraztasunak eman behar zaizkie era askotako zailtasunak dituzten haur, nerabe eta gazteei, ekintza konpentsatzailea bultzatuz.

Zehaztutako ekintza guztietan balore hauek nola landuko diren kontuan hartu beharko litzateke.



**ITSASONDOKO  
UDALA**

